

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ardi eta ahuntz esnea biltzearen zailtasunak konpentsatzeko diru-laguntzak

Goi-mendiko eta zailtasun bereziko eskualdeetan bilteta egiten duten enpresei dago zuzendua eta 70.000 euro bideratuko dira horretara

Asteartea, 2018.eko urriak 30

Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa Departamentuak minimis araubideko laguntzak eskatzeko epea ireki du, goi-mendiko eta zailtasun bereziko eskualdeetan ardi eta ahuntz-azienden ustiatzietako esne biltzeak dituen zailtasunak konpentsatzeko. Gaur [NAOn argitaratu diren laguntza](#) hauetara 70.000 euro bideratuko dira eta eskatzeko interesa duten enpresek hilabeteko epea izango dute, azaroaren 30era arte.

Deialdi honen helburua da enpresask ekonomikoki konpentsatzea eta hala oinarrizko jarduera desager ez dadin, Nafarroako landa eremuek bizirik iraun dezaten eta kontsumitzaileek lur honetan kalitatez ekoizten diren elikagaiak eskura izaten jarrai dezaten.

Laguntza hau eskatu ahal izango dute esnearen operadore gisa erregistratuta dauden lehendabiziko erosle edo erosle-eraldatzaile gisa goi-mendiko edo zailtasun bereziko udalerrietan –komunikazio zailtasunak, aldapa malkartsuak, sarrera zailak eta, noizbehinka, eguraldi txarrarekin-. Laguntza honi esker ustiatzietako horiek beraien lanarekin mendiko zonaldeetan aurrera egitea ahalbidetzen du, modu horretara bertako jarduera ekonomikoa eta landa ingurunea mantenduz. Onuradunek gehienez 450 euroko laguntza jasoko dute ekoizleko.

Eskaerak Landa Garapeneko Abeltzaintza Zerbitzura bidaliko dira, era berean modu telematikoan aurkezteko aukera izango da Nafarroako Gobernuko atariko zerbitzuen [katalogoko fitxa betez](#).